


# SARRERA HITZALDIA

*Zein dira Kataluniako sistemaren indarguneak eta ahulguneak?*
*Zer dugu ikasteko?*



**Avel łí Flors-Mas**
aflorsmas@ub.edu
*Universitat de Barcelona*






# ABIAPUNTUA

- Gizarte-eztabaida oso bizia hezkuntza-ereduari buruz, katalanaren gizarte-normalizazioaren aldeko sektoreen arteanà
  - 80-90 hamarkadak: pertsonen arteko erabilerak eraldatzeko itxaropen ez oso errealistak (Woolard 1991); «*Hem guanyat l'escola però hem perdut el pati?*» (Vila 2004)
  - Gaur egun: hizkuntza-erabileren krisia eta hezkuntza-eragileen erlaxazioaren pertzepzioa
    - «[...]
    - nekeagatik, ezintasunagatik, dena konponduta dagoen konbentzimenduagatik edo gatazkatsua izan daitekeen gai bati ekiteari uko egiteagatik, badirudi ikasle-sektore garrantzitsuen katalanarekiko deskonexioa ez dela gai garrantzitsua eskolarentzat.» (Vila 2020: 2)


22 DIUMENGE, 6 DE NOVEMBRE DEL 2022 ara

Societat

EL CATALÀ A LES AULES

La immersió lingüística, èxit o fracàs?

Dues especialistes en política lingüística analitzen en un llibre encerts, errors i reptes de l'escola catalana

LAURA SERRA

01 El model bilingüe amb línia única és el millor?

02 La immersió lingüística provoca enfrontament?






# EDUKIAK

1. Bilakaera historikoa
2. Printzipioak eta helburuak
3. Emaitzak
4. Erronkak
5. Ondorioa




# BILAKAERA HISTORIKOA

- Hizkuntza-politika propioak garatzeko unean dauden baldintzak (70-80 urteak):
  - Hizkuntza-errepresioko politikak diktadura frankistaren pean(Ferrer i Gironés 1985; Benet 1995); katalan-hiztunen elebiduntze-prozesua amaitu (Galindo, de Roselló i Bernat 2021)
  - Katalanaren transmisioa mantendu; elebitasun soziala, Estatuko beste lurralde batzuetatik etorritako langile klaseko erdaldunen immigrazio masiboen ondorioz. (50-60 urteak)
  - Aliantza estrategikoa nazionalismo katalanaren, ezkerreko alderdien eta langile klaseko erakundeen artean→ katalanaren «normalizazioa»
    - Bidegabekeria historikoa eta hizkuntza-eskubideen desberdintasuna konpontzea
    - Aukera-berdintasuna bermatzea
    - «Katalanen» eta «gaztelaniadunen» arteko barne etnizitatea saihestea («herri bakarra») → instituzio berrientzako arriskua (Vila 2005, Pujolar 2020)
- Emaitza: hurbilpen «berdintzailea» (Vila 2019)
  - Katalana lehenestea zenbait eremutan (eskola, administrazioa eta hedabide publikoak), gaztelaniaren nagusitasunari aurre egiteko: → prestigioa handitzea eta ikaskuntza motibatzea

  - Hizkuntzaren arabera bereizitako erakundeak sortzea saihestea




Font: UAB






# GARAPEN HISTORIKOA

- Kataluniako hezkuntako hizkuntza-eredua → emaitza eta hurbilketa konpentsatzailearen ikurra
- Taula-laburpena.
- Katalanaren konjunzio-ereduaren printzipioak ezartzeko hasierako etapen kronologia (neuk egina)

| Araua | Katalanaren irakaskuntza | Irakaskuntza katalanez | Ez bereizi H1en arabera | Katalana eta gaztelania antzera menperatzea | Katalana irakas-hizkuntza bezala erabiltzea |
|---|---|---|---|---|---|
| LGE (1970) | | | | | |
| Reial Decret 2092/1978 | | | | | STC 337/1994 («grabitate zentroa») |
| Decret 270/1982 | | | | | |
| Llei 7/1983 | | | | | |
| Decrets 75/1992 i 96/1992 | | | | | |
| Llei 1/1998 | | | | | |





Generalitat de Catalunya
Departament d'Ensenyament

El model lingüístic del sistema educatiu de Catalunya
L'aprenentatge i l'ús de les llengües en un context educatiu multilingüe i multicultural

# BILAKAERA HISTORIKOA

- Aldaketa demografikoa: 2000-2021 urteen artean +1,5M pertsona iritsi ziren hainbat jatorri geografiko eta linguistiko oso heterogeneotatik
  - Hezkuntza-sistema: atzerriko ikasleak → 36.000tik (2001-02) -200.000ra (2019-20) (900.000~1,3M ikasletatik)
  - 2019-20: 14,9% 14,9 atzerriko nazionalitatea eta 26,2% «migrazio-aurrekari berriekin»
- *Pla per a la llengua i la cohesió social* (2004) (I. Vila 2011)
  - Hizkuntza-murgiltze metodologiaren moldaketa
  - Harrera-gelak
  - Ikuspegi eleaniztun eta interkulturala → hizkuntza ofiziala; atzerriko hizkuntza; jatorrizko hizkuntzen aitortza eta balioespena
- *El model lingüístic del sistema educatiu de Catalunya* (Departament d'Ensenyament, 2018)
  - Hizkuntzen trataera bateratua, *transhizkuntza*, AICLE
  - Eredu eleaniztuna testuinguru desberdinetara moldatuko dena Ikastetxeetako Hizkuntza Proiektuen bidez




# KATALANAREN KONJUNZIO-SISTEMAREN PRINTZIPIOAK ETA HELBURUAK

- Eskolaratzeko eredu bakar eta bateratua
- Ikasleak H1en arabera banatzeko debekua
- Katalana irakas- eta ikas-hizkuntza «normalizatu» gisa erabili.
- Eredu eleaniztuna ikastetxe bakoitzeko errealitateari egokitua → Ikastetxeetako Hizkuntza Proiektua (IHP)
- Derrigorrezko hezkuntzaren helburuak:
  - Katalanaren eta gaztelaniaren ezagutza altua eta parekagarria (eta aranera Aranen) (art. 35.2 EAC; art. 10.1 LEC; art. 2.2 Llei 8/2022)
  - Hirugarren hizkuntzaren ezagutza funtzionala (art. 44.2 EAC; art. 12.1 LEC)








# EMAITZAK

- **Hezkuntza Sail**eko ebaluazioak eta diagnostikoak
  - Consell Superior d'Avaluació del Sistema Educatiu (CSASE)—http://csda.gencat.cat/ca
- Universitat de Barcelonak **hezkuntza-soziolinguistika**ren inguruan egindako ikerketen emaitzak
  - RESOL proiektua(k) (IP: F. Xavier Vila)
    - Hizkuntza-gaitasuna(Vila et al. 2021) eta hizkuntza-konfiantza (Bretxa et al. 2016)
    - Hizkuntza-erabilera (Comajoan et al. 2013; Bretxa i Vila 2014; Flors-Mas 2018; Vila et al. 2018)
    - Hizkuntza-jarrerak eta –ideologiak (Flors-Mas i Vila 2014; Vila et al. en premsa)






# EMAITZAK: HIZKUNTZA-GAITASUNA

- Ebaluazioa: ahozko gaitasunaren proba pilotua katalanez, gaztelaniaz eta ingelesez, derrigorrezko etaparen amaieran (DBH4)
    - Emaitza altu samarra, eta katalanez eta gaztelaniaz parekoak, derrigorrezko etaparen amaieran
    - Gaitasun-emaitzak gaztelaniaz, Estatuko batez bestekoaren oso antzekoak(CSASE 2017: 21-27)




Font: Flors-Mas 2021, a partir de CSASE






# EMAITZAK: HIZKUNTZA GAITASUNA

- Ebaluazioa: ahozko gaitasunaren proba pilotua katalanez, gaztelaniaz eta ingelesez, derrigorrezko etaparen amaieran (DBH4, 2018/2019)
  - Emaitza erlatiboki altuak eta katalanez eta gaztelaniaz parekagarriak derrigorrezko etaparen amaieran; pixka bat apalagoak ingelesez




Font: elaboració pròpia a partir de CSASE (2020)




# EMAITZAK: HIZKUNTZA-GAITASUNA

- Katalanezko eta gaztelaniazko ahozko gaitasunaren emaitzak derrigorrezko etaparen amaieran (RESOL PROIEKTUA; Vila et al. 2021)
  - Emaitza altuak eta derrigorrezko etaparen amaieran katalanez eta gaztelaniaz pareka daitezkeenak; estatistikoki esanguratsua den aldea emaitzetan, gaztelaniaren aldekoa
  - Emaitza-desberdintasuna katalanean H1en arabera

| Tipus de competència | Mitjana | Desviació estàndard | Mínim | Màxim |
|---|---|---|---|---|
| Competència comunicativa en català | 8,55 | 1,14 | 5,28 | 9,91 |
| Competència comunicativa en castellà | 8,92 | 0,93 | 5,69 | 10,0 |

| Tipus de competència | L1 català | | L1 cat.+cast. | | L1 castellà |
|---|---|---|---|---|---|
| Competència comunicativa en català | 9,09 | > | 8,32 | = | 8,08 |
| Competència comunicativa en castellà | 8,94 | = | 8,93 | = | 8,89 |

Font: Vila et al. (2021)

Vila, F. Xavier; Comajoan, Llorenç; Illamola, Cristina; Sendra, Montserrat (2021). Una anàlisi comparativa del domini del català i del castellà orals a la fi de l'Educació Secundària Obligatòria a Catalunya. *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language and Law* 75, 85-106






# EMAITZAK: HIZKUNTZA-ERABILERA IKASGELAN

- Ebidentzia kualitatiboa, DBH4ko ikasleen diskurtsoetatik abiatuta (Flors-Mas 2017, 2018)
  - Oro har, irakasleak ikasgela osoari emandako azalpenetan finkatutako katalana; salbuespenezko kasuen ezaugarria (ikasleen erabilerak baldintza ditzaketenak)
  - Oro har, gaztelaniaren erabilera ikasleen praktiken bidez sartzen da ikasgelan

**Elkarrizketa MT-C4-CT (mutila, H1 gazt.)**

ENT: quina llengua hi parles, amb els professors?
Ernest: en català
ENT: en totes les assignatures, [amb tots els professors?]
Ernest: [bueno no, a totes] no, bueno, és que depèn del professor, si el professor… bueno, l'any passat tenia una professora que fèiem física i química, i parlava en castellà, doncs jo parlava en castellà

**Elkarrizketa MN-P1-CS-b (hiru neska eta mutil bat, H1 gaztelania)**

ENT: i quan sou aquí a l'institut, a classe?, quina llengua hi parleu amb els professors?
Júlia: *yo castellano*
Bea: *yo castellano*
Júlia: *me responden en catalán, pero yo* $le^h$ *pregunto [en castellano]*
Iván: [((a ENT)) amb els] professors?, si la classe és en català en català
Adriana: sí […]
Júlia: jo millor amb castellà, perquè *me entiendo mejó … yo en catalán hay* $cosa^h$ *que no* $la^h$ *sé* $e^h$*plicar bien …* ((riure))
ENT: llavors tu els hi dius en castellà, [i ells, et contesten en]
Júlia: [sí, i ells…] *depende quién me contesta en catalán y depende quién* $po^h$ *me contesta en castellano*

Flors-Mas, Avel·lí (2018). Els usos lingüístics a les aules de secundària a Catalunya i el País Valencià: L'estudiantat i el professorat com a actors de la política lingüística educativa. *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law* 70, 103-116.






# EMAITZAK: HIZKUNTZA-ERABILERA IKASGELAN

- Katalanaren erabilera ikasgelako egoera interaktibo desberdinetan (DBH4, 2006-2021)
  - Katalanaren erabileraren atzerapen garrantzitsuak egoera guztietan, batez ere ikasgelako talde-lanean




Font: elaboració pròpia a partir de [CSASE (2021)]






# EMAITZAK: HIZKUNTZA-ERABILERA IKASGELETAN

- Katalanaren erabilera talde-lanean ikasgelan, identifikazio-hizkuntzaren arabera (DBH4, 2013-2021)
  - Erabilera bereziki txikia gaztelaniarekin identifikatzen diren ikasleen profilen artean; neurri txikiagoan, hasierako elebidunen artean eta *aloglotoen* artean
  - Desberdintasun soziolinguistikoan rol konpentsatzailea/transformatzailea auzitan jarri




Font: CSASE (2021)






# EMAITZA: HIZKUNTZA-ERABILERA IKASGELATIK KANPO

- Konjunzio-sistemak ez du zuzenean aldatzen hasierako katalan hiztunek antzekoekin duten erabilera, (Vila i Galindo 2009; Bretxa 2014; Flors-Mas 2017; Vila et al. 2018) baina erabilera aktibatzeko katalanaren gaitasuna eta «zilegitasun eta baimen sozial» zentzua orokortzen ditu, (Woolard 2016: 254 → beste espazio eta bizi-etapa batzuetan(Woolard 2011; Pujolar i Puigdevall 2015)
- «Normalizatu» egiten ditu egokitze-jarrerak, eta bereizi egiten du (neurri batean) jatorrizko hizkuntza-hautua (Pujolar i Gonzàlez 2013; Pujolar 2020b; Sorolla i Flors-Mas 2020)
- Aldaketak demografia- eta eskola-testuinguru berrian (?); testuinguru jakin batzuetara mugatzea (?))

| Elkarrizketa MN-P1-CS-a (bi neska eta mutil bat, H1 gaztelania) | |
|---|---|
| ENT: i: amb els companys, quina llengua hi: parleu?<br>Ana: castellà<br>Jordi: castellà<br>Quim: depèn [el company]<br>Andrés: [home, depèn] el company<br>Jordi: ah, també ...<br>Aida: no, jo en castellà sempre, si em xerren en català jo li responc castellà | Ana: {(fort) ue} [((riure)) vale...]<br>Quim: [((riure))] jo no tio, jo si em xerren amb català...<br>Ana: amb català<br>Quim: responc amb català, ja per [educació]<br>Jordi: [sí:]<br>Quim: si em xerren en castellà, pues responc [en castellà]<br>Andrés: [ja,] és depèn [...] |

Flors-Mas, Avel·lí (2017). *Usos lingüístics i identitats socials entre adolescents catalans i valencians*. Tesi doctoral. Universitat de Barcelona.






# EMAITZAK: ERABILERARAKO MOTIBAZIOA

- Katalana etorkizunean hezkuntzaren eta lanaren esparruan erabiltzeko nahia (DBH4, 2006-2021)
  - Katalana «asko edo beti» erabili nahi duen taldea nabarmen murriztea
  - Katalana «erdizka» edo «gutxi edo inoiz ez» erabili nahi duten taldeak gehitzea




Font: elaboració pròpia a partir de [CSASE (2021)]






# ERRONKAK (1). EREDUAREN GATAZKAK

- Katalana komunikazio-hizkuntza gisa duen eredu bakarra ezartzeak, nagusi izanik, gatazkari atea ireki ahal izan dio (Flors-Mas i Manterola 2021)
- Hezkuntzako hizkuntza-politikari buruzko akordio sozial eta politikoak zalantzan jartzea, honako hauetati:
  - Sektore sozial eta politikoak (gutxiengoa Katalunian) (Morales-Gálvez i Cetrà 2021)
  - Estatuko hedabideak (cf. Gutiérrez a Flors-Mas et al. 2022)
  - Eremu judiziala: Auzitegi Konstituzionalaren eta Gorenaren epaiak→ Kataluniako Auzitegi Nagusia legegile gisa dihardu: gaztelania %25ean irakas-hizkuntza (Nieva-Fenoll 2021)
    - Legebiltzarraren eta Gobernuaren erantzuna:
      - *Llei 8/2022, del 9 de juny, sobre l'ús i l'aprenentatge de les llengües oficials en l'ensenyament no universitari*
      - *Decret llei 6/2022, de 30 de maig, pel qual es fixen els criteris aplicables a l'elaboració, l'aprovació, la validació i la revisió dels projectes lingüístics dels centres educatius*
        - «Hizkuntzen irakaskuntzan eta erabileran zenbakizko parametroak, proportzioak edo ehunekoak ez aplikatzea.» (art. 2.a)

Flors-Mas, Avel·lí; Manterola, Ibon (2021). Els models lingüístics de l'educació obligatòria a la Comunitat Autònoma Basca i a Catalunya: una visió comparada. *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law* 75, 27-45






# ERRONKAK (2). ALDAKETA PEDAGOGIKOAK

- Eredu *bertikaletik* eredu *horizontalera* (Vila et al. 2019)
- Ikasgelak *eremu heteroglosikoak* (García 2009) → irakas-hizkuntza?
- Hizkuntza gutxituentzako *arnasguneak*, *transhizkuntza jasangarria* (Cenoz i Gorter 2017)
- Laguntza didaktikoak birpentsatu, eta ikaskuntza helburu duten erabileraren inguruko eskuhartzeak zilegiztatu










# ERRONKA (3). IKASTETXEETAKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK ETA EMAITZAK

- IHP koherenteak, lege-markoarekin eta dagokion administrazioaren irizpideekin (Llei 8/2022, art. 2.4)
  - IHP baliozkotzeko mekanismoak administrazioaren aldetik (DL 6/2022, art. 4)
- Eskola-inguruneko hizkuntza-erabilerak kontuan hartuta prestatutako IHPak
  - Ikasgaietako «irakas-hizkuntzaz» (eta ehunekoak) harago → eskolazko kanpoko jarduerak, eskola-jantokiak, etab. (per ex. Síndic de Greuges 2022)
  - «Presentzia horren norainokoa irizpide pedagogikoen arabera eta modu berezituan zehaztu behar da ikastetxe bakoitzerako, eta *ikuspegi orokor, integratzaile eta zehalerro kurrikularretik egin behar da, hezkuntza-espazio eta ikaskuntza-baliabide guztiak barnean hartuta, izaera digitaleko baliabideak barne*.» (Llei 8/2022, art. 2.3)
- IHParen onarpena eta berrikuspena katalanez eta gaztelaniaz gaitasunak lortzearekin lotzea
- Ikastetxearen hizkuntza-proiektua berrikusi eta aldatu egin behar da, ahozko eta idatzizko ezagutzaren eta ikasleek hezkuntza-etapa guztietan egiaztatzen dituzten hizkuntzen erabileraren arabera. Azterketa hori aldizkako proba eta ebaluazioen bidez egin behar da, barnekoak zein kanpokoak, bi urtetik beherako aldietan.» (DL 6/2022, art. 3.4)
  - Alderdi garrantzitsuak:
    - Ebaluazioaren aktoreak(zentralizazioa eta kanpokoak)
    - Egiaztapen «automatikoaren» berrikuspena → *debaluazioa* (C1 DBH4 ostean → katalanaren C2 maila irakasleei 2024tik aurrera, font)






# ERRONKAK (4). ERABILERAREN SUSTAPENA, IKASGELAZ HARAGO

- Eskolak ezagutza ematen du, baina ez ditu erabilerak zuzenean aldatzen
- Hizkuntza, errealitate interaktiboa: ezagutzatik eta motibaziotik haratago (faktore indibidualak)→ solaskideen beharra eta *legezko hiztun* gisa onartzeko beharra (Pujolar 2020b)
- Bereziki, gutxiagotze handiagoko testuinguruetan, → ikasgeletatik harago hizkuntza erabiltzeko espazio seguruak behar dira
  - Eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxeen barruan eta kanpoan; kirol-klubak; hezkuntza-aisialdiko elkarteak; musika-elkarteak; herri-kulturako eta jai-kulturako elkarteak; eta abar.
- Helburuak:
  - Hasierako katalan hiztunak ez direnek katalanera sartzea → *hizkuntza-muda*(Pujolar i Gonzàlez 2013; Pujolar i Puigdevall 2015)
  - Katalanaren erregistro informalak eta lagunartekoak menderatzea
  - Katalanarekin eta haren hiztunekin loturak sortzea (identifikazioa)
  - Katalanaren konnotazio formal eta instituzionalak zalantzan jartzea

- Aukerak:
  - Borondatezko parte-hartzea: gatazka-arrisku gutxiago
  - Gizarte zibila inplikatzea ekintza kolektiboan, hizkuntza-biziberritzearen bidez → erakundeetatik eta gizabanakoetatik, agentzia kolektibotik eta komunitatearen eraikuntzatik haratago.






# ONDORIO GISA

- Eskola ikuspegi konpentsatzailearekin vs ugalketa-ikuspegiarekin (eraldaketa-tresna, eta ez errealitatearen ispilu soil bat), → hizkuntza gutxituan gaitasuna bermatzen duten ereduak indartzea
- Ereduen aplikazio koherentea ziurtatzen duten legegintza- eta betearazpen-neurriak
- (Bir)zilegitasun soziala
  1. Babes sozial zabala—%76 ereduaren defentsaren alde (CEO 2021)
  2. Katalanaren gutxiagotzea—hezkuntza eremuan (eta bestelakoetan )erabilera nagusia hizkuntza eskuratzeko desberdintasun soziolinguistikoak orekatzeko.
  3. Emaitzak—oro  har egokiak ikasle guztien gaitasun elebidunari dagokionez
  4. Aukera-berdintasuna
     1. Sozioekonomia-, formazio- eta lan-eremuei dagokienez
     2. Hautatzeko aukerak modu esanguratsuan zabaltzea → libreki aukeratutako katalan-hiztun identitaterako sarbidea, beste identifikazio batzuekin bateragarria
  5. Eredu interkulturala—aniztasuna aitortzea, baina katalana *berezko hizkuntza* gisa ezagutzea, erabiltzea eta horrekin lotura afektiboa izatea.
  6. Kohesio soziala—Saihestu edo, gutxienez, murriztu jatorriaren araberako bereizketa (linguistikoa, klasekoa...)
  7. Hizkuntza-eskubideak bermatzea—*hizkuntza-menperakuntza* harremanak gainditzea (Morales-Gálvez 2017)
- «*Eternal watchfulness is the price of RLS*» (Fishman 1991: 108)




# ESKERRIK ASKO!

MOLTES GRÀCIES!

**Avel·lí Flors-Mas**
aflorsmas@ub.edu
*Universitat de Barcelona*